

MATEMATIKA

1.UNITATEA: ZENBAKIAK ETA ERAGIKETAK

1. Zenbat unitate adierazten ditu azpimarratutako zifrak zenbaki bakoitzean? Lehenengoa adibidea da. **Kontuz!** Puntua idatzi miloikoetan eta milakoetan.

- 12.635.023 → 5.000 U
- 321.405.174 → _____ U
- 200.614 → _____ U
- 6.871.952 → _____ U

2. Idatzi letraz honako zenbaki hauek:

12.345.012 → _____

354.210.410 → _____

3. Konparatu zenbaki hauek:

210.632 ____ 41.210 312.125.402 ____ 312.250.630

25.124 ____ 25.129 78.152.001 ____ 64.541.450

4. Ordenatu zenbaki hauek handienetik txikienera:

- 43.210 , 42.310 eta 42.213 → _____ > _____ > _____
- 154.689.410, 214.651.741 eta 63.854.119 → _____ > _____ > _____
- 49.214 , 35.654 eta 35.700 → _____ > _____ > _____

5. Osatu honako zifra hauekin osa daitezkeen zazpi zifrako zenbakirik handiena eta txikiena: 3-4-2-1-0-8-6 **Kontuz! Idatzi puntua milioietan eta milakoetan.**

- Txikiena: _____
- Handiena: _____

6. Begiratu adibidea eta osatu taula hau:

Zenbakia	Hurbilen duen ehunekoa	Hurbilen duen milakoa
412.658	412.700	413.000
36.478		
796.216		

7. Aukeratu zer propietate betetzen duen berdintza bakoitzak.

- $3.125 + 1.205 = 1.205 + 3.125 \rightarrow$ _____
- $(13.254 + 2.150) + 36.415 = 13.254 + (2.150 + 36.415) \rightarrow$ _____